

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

1/2026 Foru Araua, ekainaren 11koa, Ondasun Higiezin Zergarena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onetsi dutela «1/2026 Foru Araua, ekainaren 11koa, Ondasun Higiezin Zergarena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2026ko ekainaren 11.—Eider Mendoza Larrañaga, Gipuzkoako diputatu nagusia. (4082)

HITZAURREA

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onetsiak, ahalmena eman zien lurralde historikoetako erakunde eskudunei landa eta abeltzaintzako lurralde kontribuzioa arautzeko; era berean, foru aldundiek kontribuzio hori ordainarazteko eskumena ere jaso zuten, toki korporazioekin lankidetzan jarduteko dauden formulak edo gerora egoki iritzi litezkeenak eragotzi gabe.

Esleipen horrek berekin ekarri zuen onestea Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua, zeinaren ondorioz desagertu egin baitziren bai hiri, landa eta abeltzaintzaren esparruko lurralde kontribuzioak eta bai orubeen gainean aplikatzen zen udal zerga, eta tributu berria udal ogasunen oinarritzko figura bihurtu zen. Foru arauak funtsezko zeregina ematen die udalei, tributua borondatezko epean zein epe exekutiboan kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak jartzen baititu haien esku.

Euskal Autonomia Erkidegoak gerora hitzartutako Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, ahalmen berbera jasotzen du, hasieratik gaurko idazketa bitarte, lurralde historikoetako erakunde eskudunentzat, eta hartaz baliatuta erakunde horiek arauak eman ditzakete ondasun higiezin gaineko zerga erregulatze eta lurralde historiko bakoitzean kokatuta dauden landa eta hiri izaerako ondasunak zergapatzeko.

Horrela, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergarenak, 35 urtetik gora arautu du zerga hori, ahaztu gabe denbora tarte horretan hainbat aldaketa izan dituela, batzuk esanguratsuak eta beste batzuk tamaina txikiagokoak, zeinen artean nabarmentzekoak baitira xedapen hauek direla medio sartutakoak: abenduaren 27ko 4/1999 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Erregimenari buruzkoa; martxoaren 19ko 4/2003 Foru Araua, toki entitateen zerga sistema aldatzeko; martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua (Zergen Foru Arau Orokorra); edo uztailaren 9ko 3/2008 Foru Araua, jarduera ekonomiko sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADA GENERAL

Norma Foral 1/2026, de 11 de junio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

LA DIPUTADA GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 1/2026, de 11 de junio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 11 de junio de 2026.—La diputada general de Gipuzkoa, Eider Mendoza Larrañaga. (4082)

PREÁMBULO

Con el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/1981, de 13 de mayo, se estableció la competencia de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para regular la Contribución Territorial Rústica y Pecuaria, así como la exacción de la misma a las respectivas Diputaciones Forales, sin perjuicio de las fórmulas de colaboración existentes con las Corporaciones Locales o de las que, en lo sucesivo, se considerasen oportunas.

Fruto de dicha atribución se aprobó la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, cuya implantación supuso la supresión de las Contribuciones Territoriales Urbana y Rústica y Pecuaria, así como del Impuesto Municipal sobre Solares, constituyendo dicho impuesto la figura básica de las Haciendas municipales. La norma foral otorga un papel fundamental a los Ayuntamientos al atribuirles las facultades de gestión, liquidación, inspección y recaudación tanto en período voluntario como ejecutivo.

El posterior Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, recoge desde su inicio y hasta la redacción vigente, la misma competencia de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para dictar las normas que regulen el impuesto sobre bienes inmuebles, a fin de gravar los bienes de naturaleza rústica y urbana sitos en su respectivo Territorio Histórico.

De esta manera, la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles ha regulado el impuesto durante más de 35 años, sin olvidar que ha sido objeto de diversas modificaciones de mayor o menor envergadura, entre las que cabe destacar las llevadas a cabo por la Norma Foral 4/1999, de 27 de diciembre, de Régimen Fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Norma Foral 4/2003 de 19 de marzo, de reforma del sistema de tributación local, la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria, o la Norma Foral 3/2008, de 9 de julio, por la que se aprueban medidas fiscales para incentivar la actividad económica, de adaptación del Impuesto sobre Sociedades a la reforma contable y otras medidas tributarias, entre otras.

Adierazi behar da 12/1989 Foru Arauak udal esparruko zerga ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko higiezinaren katas-troarekin erlazionatutako gaia ere arautzen duela, eta azken kasu horretan haren sistemak baduela hobetzeko aukerarik ka-tastro balioak finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratzeko proze-durei dagokienez.

Hala, ondasun higiezinaren gaineko zerga zuzeneko tributu bat da, izaera errealekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritako landa eta hiri ondasun higiezinaren balioa zergape-tzen duena. Udalerriek nahitaez ordainaraztekoa da, halako mo-duz non tokiko tributu sistemaren giltzarritzat hartzen baita, uda-lek diru bilketarako duten iturri nagusietako bat izateagatik.

Azaldutako arrazoiengatik, eta haren indarraldiak luze jo due-la ikusita, egoki iritzi da gai horietako bakoitza esparru normatibo propio batean arautzea; izan ere, nahiz eta biak ezinbestean dau-den elkarri lotu-lotuta, printzipio desberdinei erantzuten diete, eta horrek beharrezko egiten du tresna normatibo autonomoak ones-tea esandako gaiak arautzeko. Horrela, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren edukia bitan banatuta geratuko da: alde batetik, foru arau honetan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua jasoko da, eta beste foru arau batean Gipuzkoako Lu-rralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroa arautuko da.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arau honek ha-mabost artikulua ditu, xedapen gehigarri bakarra, xedapen iragan-ko bakarra, xedapen indargabetzaile bakarra eta azken hiru xe-dapen, eta kontinuitista da aurreko araudiarekiko. Nolanahi ere, testuak baditu berritasun garrantzitsuak –baita zuzenketa tekni-ko eta terminologikoak ere–, gai horiek bitan banatzeagatik eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritako oinarritzko esparru komunera egokitu beharagatik zu-zenean ondorioztatuak.

Berritasunen artean, azpimarratzekoa da zerga egitatearen konfigurazioa aldatu egiten dela, Higiezinaren Katastroari buruzko Foru Arau berrian beste ondasun kategoriatu bat sartzen baita hiri eta landa lurreko ondasunekin batera, ezaugarri berezikoak di-ren ondasunak hain zuzen ere.

Azkenik, adierazi behar da udalek foru arauan aurreikusita-ko gutxienezko baina karga tasa handiagoak onartzeko aukera jasotzen dela, udal autonomiaren erabileran sakontzeko helbu-ruarekin.

1. artikulua. Zergaren izaera.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga zuzeneko tributu bat da, izaera errealekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udal mugartetan kokatuta dauden ondasun higiezinaren balioa zergape-tzen duena foru arau honetan ezarritako eran.

2. artikulua. Zerga egitatea eta zergari lotu gabeko kasuak.

1. Landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gai-neko eskubide hauen titulartasunak eratzen duen tributuaren zerga egitatea:

- Ondasun higiezinaren gaineko edo haiei atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio emakida bat.
- Azalera eskubide erreala bat.
- Gozamen eskubide erreala bat.
- Jabetza eskubidea.

2. Aurreko apartatuan definitutako zerga egitateetako bat bertan ezarritako hurrenkeran gertatzeak berekin ekarriko du landa edo hiri ondasun higiezinaren ez geratzea lotuta apartatu ho-rretan aurreikusten diren gainerako modalitateetara.

Ezaugarri bereziko higiezinaren kasuan ere hurrenkera hori be-ra aplikatuko da, higiezinaren gainean egon daitezkeen emakida eskubideek higiezinaren azalera agortzen ez dutenean izan ezik;

Resulta necesario apuntar que la referida Norma Foral 12/1989 no solo regula el impuesto de ámbito local sino también la materia relativa al catastro inmobiliario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, con una sistemática, en este último caso, que se considera necesario mejorar en lo que se refiere a los procedi-mientos de fijación, revisión, modificación y actualización de los valores catastrales.

Así, el impuesto sobre bienes inmuebles se caracteriza como un tributo directo de carácter real que grava el valor de los bie-nes inmuebles de naturaleza rústica y urbana sitos en cualquier término municipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, siendo un tributo de exacción obligatoria para los municipios, de tal ma-nera que está considerado como la piedra angular del sistema tributario local por constituir una de las principales fuentes de recaudación de los Ayuntamientos.

Las razones expuestas y su larga vigencia en el tiempo aconsejan regular en un ámbito normativo propio cada una de estas materias, que, aunque inevitablemente conectadas, responden a principios diferentes, aprobando instrumentos normativos au-tónomos para su regulación. Así, el contenido de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, quedará desdoblado, por una parte, en la presente Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y, por otra, en otra Norma Foral del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La presente Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmue-bles, que consta de quince artículos, disposición adicional única, disposición transitoria única, disposición derogatoria única y tres disposiciones finales, resulta ser continuista con la normativa an-terior, si bien incorpora alguna novedad importante, además de correcciones técnicas y de carácter terminológico que son conse-cuencia directa del desdoblamiento de estas materias y de su adecuación al marco básico y común establecido en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Entre las novedades cabe destacar la modificación de la configuración del hecho imponible como consecuencia de la in-troducción de una tercera categoría de bienes, los bienes de ca-racterísticas especiales, –junto a los bienes de naturaleza urba-na y bienes de naturaleza rústica–, en la nueva Norma Foral del Catastro Inmobiliario.

Finalmente, procede señalar que se recoge la posibilidad de que los Ayuntamientos aprueben tipos de gravamen superiores al mínimo previsto en la norma foral con la finalidad de profun-dizar en el ejercicio de la autonomía municipal.

Artículo 1. Naturaleza del impuesto.

El impuesto sobre bienes inmuebles es un tributo directo de carácter real que grava el valor de los bienes inmuebles sitos en cualquier término municipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en los términos establecidos en esta norma foral.

Artículo 2. Hecho imponible y supuestos de no sujeción.

1. Constituye el hecho imponible del impuesto la titulari-dad de los siguientes derechos sobre los bienes inmuebles rús-ticos, urbanos y de características especiales:

- De una concesión administrativa sobre los propios in-muebles o sobre los servicios públicos a que se hallen afectos.
- De un derecho real de superficie.
- De un derecho real de usufructo.
- Del derecho de propiedad.

2. La realización del hecho imponible que corresponda de entre los definidos en el apartado anterior, por el orden en él es-tablecido, determinará la no sujeción del inmueble urbano o rústico a las restantes modalidades en el mismo previstas.

En los inmuebles de características especiales se aplicará esta misma prelación, salvo cuando los derechos de concesión que puedan recaer sobre el inmueble no agoten su extensión

kasu horretan, zerga egitatea gertatuko da baita emakidari afektatuta ez dagoen higiezinaren zatiaren gaineko jabetza eskubi-deagatik ere.

3. Zerga honen ondorioetarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren araudian hala deskribatzen direnak hartuko dira landa eta hiri ondasun higiezintzat zein ezazgarri bereziko ondasun higiezintzat.

4. Higiezin bat udal mugarte batean baino gehiagotan badago, zerga honen ondorioetarako ulertuko da haietako bakoi-tzekoa dela kasuan kasuko udal mugartean okupatzen duen azalaren proportzioan.

5. Ez daude zerga honi lotuta errepideak, bideak, kaleak, bidegorriak, lehorreko gainerako bideak eta eremu libreak, betiere herri jabarikoak badira eta aprobetxamendu publiko eta doakoa badute.

3. artikulua. *Salbuespenak.*

1. Higiezin hauek egongo dira salbuetsita:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren, Estatuaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoen edo bertako toki entitateen jabetzakoak direnak, baldin eta herritarren segurtasunari eta hezkuntzako zein presondegiatiko zerbitzuei zuzenean lotuta badaude, bai eta Estatuak defentsa nazionalari atxikiak dituenak ere.

b) Herri ondasunak eta esku komuneko auzo mendiak.

c) Honako hauen jabetzakoak direnak:

1.a. Udalerrienak, organismo autonomoenak edo horiei atxikitako partzuergoenak, edo udalerrri horiek guztiz partaidetuta dauden sozietateenak, betiere udalerrri horien lurraldean kokatuta badaude.

2.a. Mankomunitateenak, haien organismo autonomoenak edo mankomunitate horiek guztiz partaidetuta dauden sozietateenak, betiere baldin eta mankomunitate horiek jarduten duten lurralde eremuan kokatuta badaude.

Aurreko 1. eta 2. ordinaletan, salbuespena aplikagarria izan dadin, ezinbestekoa da ondasun horiek erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita egotea eta emakida administratiboko erregimen baten menpe ez egotea, non eta emakida administratiboaren titularrak ez den irabazi-asmorik gabeko elkarte bat, kasuan kasuko Elkarleen Erregistroan izena emanda dagoena eta udalarekin batera udal intereseko deklaraturako lankidetzak jarduerak egiten dituen (udaleko organo eskudunak deklaratuak).

d) Gurutze Gorriarenak eta erregelamendu bidez zehazten diren beste erakunde parekagarri batzuenak.

e) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen arabera salbuespena aplikatu behar zaien higiezinak, eta, elkarrekikotasun-baldintzetan, atzerriko gobernuenak, haien ordezkaritza diplomatikorako, kontsularrerako edo haien erakunde ofizialetarako badira.

f) Unibertitate publikoaren eta hari atxikitako ikastetxe publikoen jabetzakoak diren eta beren helburuak betetzeko atxikita dauden ondasunak, eta hezkuntza-itunaren arabera atxikitako ikastetxe pribatuaren jabetzakoak diren ondasunak, itunpeko ikastetxe izaten jarraitzen duten bitartean.

2. Halaber, salbuetsita egongo dira, alde zuzenetik eskatuta, honako hauek:

a) Birsorkuntza naturaletik edo basoberritze lanetatik datozen espezieekin basotutako mendien azalera, betiere baldin eta basoberritze horiek Administrazio eskudunak onetsitako antolamendu proiektuen edo Baso Kudeaketa Jasangarriko Plan Teknikoen esparruan eginak badira. Paragrafo honetan aurreikusitako salbuespenak hogeitau urteko iraupena izango du, eskara egin eta hurrengo zergalditik kontatzen hasita.

b) Eliza Katolikoarenak, Espainiako estatuak eta Egoitza Santuak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz izenpe-tutako Akordioan ezarritakoaren arabera, eta legez onartuta dau-

superficial, supuesto en el que también se realizará el hecho imponible por el derecho de propiedad sobre la parte del inmueble no afectada por una concesión.

3. A los efectos de este impuesto tendrán la consideración de bienes inmuebles rústicos, urbanos y de características especiales los definidos como tales en la normativa reguladora del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4. En caso de que un mismo inmueble se encuentre localizado en distintos términos municipales se entenderá, a efectos de este impuesto, que pertenece a cada uno de ellos por la superficie que ocupe en el respectivo término municipal.

5. No están sujetos a este impuesto las carreteras, los caminos, las calles, las vías ciclistas, las demás vías terrestres y los espacios libres, siempre que sean de dominio público y aprovechamiento público y gratuito.

Artículo 3. *Exenciones.*

1. Estarán exentos los siguientes inmuebles:

a) Los que estén directamente afectos a la seguridad ciudadana y a los servicios educativos y penitenciarios, y sean propiedad de la Comunidad Autónoma del País Vasco, del Estado, de la Diputación Foral de Gipuzkoa o de las entidades locales, así como los del Estado afectos a la defensa nacional.

b) Los bienes comunales y los montes vecinales en mano común.

c) Los que sean propiedad de:

1.º Los municipios o de los organismos autónomos y consorcios adscritos a los mismos, o de sociedades íntegramente participadas por dichos municipios, siempre que estén enclavados en el territorio de los referidos municipios.

2.º Las mancomunidades o de sus organismos autónomos o de sociedades íntegramente participadas por dichas mancomunidades, cuando los bienes estén enclavados en el ámbito territorial de actuación de las referidas mancomunidades.

En los ordinales 1.º y 2.º anteriores, para que sea aplicable la exención, los bienes deberán estar afectos al uso o servicio público y no encontrarse en régimen de concesión administrativa, salvo que la entidad titular de la concesión administrativa sea una asociación sin ánimo de lucro, inscrita en el Registro de Asociaciones correspondiente, que realice actividades de colaboración con el municipio declaradas de interés municipal por el órgano competente del mismo.

d) Los de la Cruz Roja y otras entidades asimilables que reglamentariamente se determinen.

e) Los inmuebles a los que sea de aplicación la exención en virtud de convenios internacionales en vigor y, a condición de reciprocidad, los de los Gobiernos extranjeros destinados a su representación diplomática, consular, o a sus organismos oficiales.

f) Los bienes propiedad de la Universidad Pública y centros públicos adscritos a la misma que estén afectos al cumplimiento de sus fines y los bienes propiedad de los centros docentes privados acogidos al régimen de conciertos educativos, en tanto mantengan su condición de centros concertados.

2. Asimismo, previa solicitud, estarán exentos:

a) La superficie de los montes poblados con especies forestales procedentes de regeneración natural y/o repoblaciones, siempre que éstas estén sujetas a proyectos de ordenación o Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible aprobados por la Administración competente. La exención prevista en este párrafo tendrá una duración de veinte años contados a partir del período impositivo siguiente a aquél en que se realice su solicitud.

b) Los de la Iglesia Católica, en los términos previstos en el Acuerdo entre el Estado español y la Santa Sede sobre asuntos económicos fechado el 3 de enero de 1979, y los de las aso-

den elkarte konfesional ez-katolikoena, Konstituzioaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraituz haietako bakoitzarekin izenpetutako lankidetzak akordioetan ezarritako terminoetan.

c) Trenbideek hartutako lurra eta lur horietan kokatutako eraikinak, baldin eta geltokiak edo biltegiak izateko edo linea horien ustiapenak ezinbestekoa egiten duen edozein zerbitzu emateko erabiltzen badira. Beraz, ostalaritza establezimenduak, ikuskizunetakoak, merkataritza eta aisialdiko establezimenduak, enplegatuentzako etxebizitzak, zuzendaritzaren bulegoak eta fabrika instalazioak ez dira salbuetsita egongo.

d) Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9.2 artikuluko a) letraren arabera, monumentu diren ondasun higiezinak. Salbuespen hau Euskal Kultur Ondarearen Erregistroan inskribatuta dauden babes bereziko zein babes ertaineko ondasunei aplikatuko zaie.

Era berean, salbuetsita egongo dira Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9.2 artikuluko b) letraren arabera, monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak. Salbuespen hau Euskal Kultur Ondarearen Erregistroan inskribatuta dauden babes bereziko zein babes ertaineko ondasunei baino ez zaie aplikatuko.

Orobat, salbuetsita egongo dira Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 9.2 artikuluko c) letraren arabera, eremu arkeologiko batean aurkitzen diren ondasun higiezinak, hain zuzen ere babes berezi eta ertaineko kultura ondasun deklaratuak, baldin eta, esku-hartze arkeologikoren bat egin ondoren, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak erabaki badu haietan aurkitutako hondakinak mantendu behar direla, eta ezin direla ezabatu ez lekuz aldatu.

d) letra honetan aipatzen diren ondasun higiezinak ustiapen ekonomikoei atxikita badaude ez dira salbuetsita egongo, salbu eta irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan aurreikusitako salbuespen kasuetan sartzen badira.

e) Kokatuta dauden udalerrietako udalei kontraprestaziorik gabe lagatzen zaizkien ondasun higiezinak.

f) 600 eurotik gorako zerga oinarria ez duten ondasunak

Apartatu honetan aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko, interesdunek alde aurretik eskatu beharko diote haien aplikazioa udal eskudunari.

Ematen diren salbuespenek eskaera egin eta hurrengo zergalditik aurrera izango dute eragina.

3. Ordenantza fiskalek hala ezartzen badute, titularitate publikoko osasun zentroen ondasunak salbuetsita gera daitezke baldin eta ondasun horiek zentroen berezko helburuetarako erabiltzen badira. Salbuespen honen gainerako alderdi substantibo eta formal guztiak ordenantza fiskalean arautuko dira.

4. Ordenantza fiskalek, tributuaren bilketa lana efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera egin dadin, erabaki dezakete likidazio jakin batzuk egin gabe uztea edo, hala bada, horiek balio gabetu eta kontabilitatean baja ematea, baldin eta haietatik ondorioztatzen diren zorren zenbatekoa kuotaren ordainarazpenak eta bilketak dakarren kostua baino txikiagoa dela irizten bada.

Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga kudeatu, ikuskatu edo bilteko garaian eskuordetzaz jarduten badu kasuan kasuko hitzarmena sinatuta, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zenbateko hori zein izango den ezarri ahal izango du.

ciaciones confesionales no católicas legalmente reconocidas, en los términos establecidos en los respectivos acuerdos de cooperación suscritos en virtud de lo dispuesto en el artículo 16 de la Constitución.

c) Los terrenos ocupados por las líneas de ferrocarriles y los edificios enclavados en los mismos terrenos, que estén dedicados a estaciones, almacenes o a cualquier otro servicio indispensable para la explotación de dichas líneas. No están exentos, por consiguiente, los establecimientos de hostelería, espectáculos, comerciales y de esparcimiento, las casas destinadas a viviendas de los empleados, las oficinas de la dirección ni las instalaciones fabriles.

d) Los bienes inmuebles que tengan la condición de monumento a que se refiere la letra a) del artículo 9.2 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención alcanzará tanto a los bienes de protección especial como de protección media que estén inscritos en el Registro del Patrimonio Cultural Vasco.

Igualmente estarán exentos los bienes inmuebles que formen parte de un conjunto monumental a que se refiere la letra b) del artículo 9.2 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención sólo alcanzará a los inmuebles de protección especial y de protección media que estén inscritos en el Registro del Patrimonio Cultural Vasco.

Asimismo, estarán exentos los bienes inmuebles que se encuentren dentro de una zona arqueológica a que se refiere la letra c) del artículo 9.2 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, declarados como bienes culturales de protección especial y media, y siempre que, tras haber sido objeto de algún tipo de intervención arqueológica, el Departamento correspondiente del Gobierno Vasco haya establecido la necesidad de mantener en los mismos los restos encontrados, sin que puedan ser eliminados ni trasladados.

No estarán exentos los bienes inmuebles a que se refiere esta letra d) cuando estén afectos a explotaciones económicas, salvo que les resulte de aplicación alguno de los supuestos de exención previstos en la Norma Foral 3/2004 de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

e) Los bienes inmuebles cedidos sin contraprestación a los ayuntamientos de los municipios en los que estén enclavados.

f) Los bienes cuya base imponible no supere la cantidad de 600 euros.

Para la aplicación de las exenciones previstas en este apartado, las personas o entidades interesadas deberán solicitarlo de forma previa al Ayuntamiento competente.

Las exenciones que se concedan surtirán efectos desde el período impositivo siguiente a aquél en que se hubiera efectuado la solicitud.

3. Las ordenanzas fiscales podrán regular una exención a favor de los bienes de que sean titulares los centros sanitarios de titularidad pública, siempre que los mismos estén directamente afectados al cumplimiento de los fines específicos de los referidos centros. La regulación de los restantes aspectos sustantivos y formales de esta exención se establecerá en la ordenanza fiscal.

4. Las ordenanzas fiscales podrán establecer, por criterios de eficiencia y economía en la gestión recaudatoria del tributo, la no liquidación o, en su caso, la anulación y baja en contabilidad de todas aquellas liquidaciones de las que resulten deudas de cuantía inferior a la que se estime y fije insuficiente para la cobertura del coste de su exacción y recaudación.

En el supuesto de que la Diputación Foral de Gipuzkoa actúe por delegación mediante la suscripción del oportuno convenio en la gestión, inspección o recaudación del impuesto, la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas podrá establecer dicha cuantía.

4. artikulua. *Subjektu pasiboa.*

1. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasibo dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea erabili gabe duten jaraunspenak, betiere zerga honen zerga egitea kasu bakoitzean erazten duten eskubidearen titular badira.

Emakidadun bat baino gehiago direnean zergadun, emakidadun bakoitzak bere kuotaren arabera izango du izaera hori, eta, kuota hori erabakitzeke, kontuan hartuko da zer katastro balio dagokion emandako azalerari eta emakida bakoitzarekin zuzenean lotuta dagoen eraikinari. Emakidadunek foru arau honen 12. artikuluan aipatzen diren aitortpenak formalizatzeke duten obligazioaren kalterik gabe, higiezina afektatuta edo atxikita duen ente edo organismo publikoak edo haren administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen denak emakidei buruzko informazioa eman beharko dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, bertako diputatuak foru agindu bidez ezarriko dituen modu eta baldintzetan.

Jabea emakiden eraginpean ez dagoen azaleragatik gertatzen denean zergadun, aurreko paragrafoan aipatu den ente edo organismoak haren ordezko gisa jardungo du, eta ordaindutako zerga zorraren zenbatekoa ezin izango dio zergadunari jasanaerazi.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko da deusetan galarazi gabe subjektu pasiboak ahalmena izango duela berak jasandako zerga zama beste batzuei jasanaerazteko, zuzenbide erkideko arauei jarraituz.

Udalek dagokien kuota likidoaren zatia jasanaeraziko diete zergaren subjektu pasibo izan ez arren jabari publikoko ondasunak edo ondare ondasunak kontraprestazio bidez erabiltzen dituztenei, eta azken horiek behartuta daude adierazitako kuota hori jasatera. Jasanaerazpen hori ez da nahitaezkoa izango ondasun higiezinak izaera sozialeko etxebizitza publikoko politikei adskribituta daudenean.

Jasanaerazi beharreko kuota kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer katastro balio dagokion erabilera eskubidearen errentari edo lagapen-hartzaile bakoitzari erabilitako azaleragatik eta eraikinean dagokion zatiagatik.

3. Higiezinak hainbat pertsonarenak badira pro indiviso egoeran, katastroko titulartasuna erkide, kide edo partaide bakoitzari egotziko zaio, norberari dagokion kuotaren arabera, eta, hala behar denean, baita haiek guztiek osatutako erkidegoari ere, zeina identifikazio fiskaleko zenbakia aipatuta agerraraziko baita. Kasu horretan, zerga kuota zatitzeko eskatu ahal izango da, baina, horretarako, ordaintzera behartuta dauden guztien datu pertsonalak eta helbide fiskalak eman beharko dira.

Zerga kuota ezingo da zatitu baldin eta zatiketaren ondorioz ateratzen diren kuotak foru arau honen 3. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako kopuruak baino txikiagoak badira.

4. Ondasunen titulartasuna irabazpidezko sozietate araubidean dauden edo ondasunen foru komunikazioa adostu duten bi ezkontideena denean edo ondare araubide ekonomiko gisa aurreko edozein hitzartu duten izatezko bikoteko bi kideek dute, zergaren kuota ezingo da zatitu.

5. artikulua. *Afekzio erreala eskualdaketa eta erantzukizun solidarioa titularkidetasunean.*

1. Zerga honen zerga egitea erazten duten eskubideen titulartasuna zeinahi den arrazoiengatik aldatzen bada, eskubide horien xede diren ondasun higiezinak zerga kuota osoaren

Artículo 4. *Sujeto pasivo.*

1. Son sujetos pasivos del impuesto sobre bienes inmuebles, a título de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio, que ostenten la titularidad del derecho que, en cada caso, sea constitutivo del hecho imponible del impuesto.

Cuando la condición de contribuyente recaiga en varios o varias concesionarias, cada uno lo será por su cuota, que se determinará en razón a la parte del valor catastral que corresponda a la superficie concedida y a la construcción directamente vinculada a cada concesión. Sin perjuicio del deber de las concesionarias y los concesionarios de formalizar las declaraciones a que se refiere el artículo 12 de la presente norma foral, el ente u organismo público al que se halle afectado o adscrito el inmueble o aquel a cuyo cargo se encuentre su administración y gestión, estará obligado a suministrar al Departamento de Hacienda y Finanzas la información relativa a dichas concesiones en los términos y demás condiciones que se determinen por orden foral de la diputada o del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Cuando la propiedad o el propietario tenga la condición de contribuyente en razón de la superficie no afectada por las concesiones, actuará como sustituto de la misma el ente u organismo público al que se refiere el párrafo anterior, el cual no podrá repercutir en la o el contribuyente el importe de la deuda tributaria satisfecha.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior será de aplicación sin perjuicio de la facultad del sujeto pasivo de repercutir la carga tributaria soportada conforme a las normas de derecho común.

Los ayuntamientos repercutirán la parte de la cuota líquida del impuesto que corresponda en quienes, no reuniendo la condición de sujetos pasivos del mismo, hagan uso mediante contraprestación de sus bienes demaniales o patrimoniales, los cuales están obligados a soportar la repercusión. La repercusión no será obligatoria cuando se trate bienes inmuebles adscritos a políticas de vivienda pública de carácter social.

A tal efecto, la cuota repercutible se determinará en razón a la parte del valor catastral que corresponda a la superficie utilizada y a la construcción directamente vinculada a cada arrendatario o arrendataria, cesionario o cesionaria del derecho de uso.

3. Tratándose de bienes proindiviso pertenecientes a una pluralidad de personas, la titularidad catastral se atribuirá a cada uno de los comuneros y las comuneras, miembros o partícipes por su respectiva cuota y, en su caso, a la comunidad constituida por todas ellas, que se hará constar bajo la denominación de su número de identificación fiscal. En este caso, se podrá solicitar la división de la cuota tributaria, siendo indispensable aportar los datos personales y los domicilios fiscales de todas las personas o entidades obligadas al pago.

No será objeto de división la cuota tributaria en aquellos supuestos que, como consecuencia de la misma, resulten cuotas inferiores a las cantidades previstas en el apartado 4 del artículo 3 de la presente norma foral.

4. Tratándose de bienes cuya titularidad sea común a los cónyuges en régimen de sociedad de gananciales o comunicación foral de bienes o a los miembros de parejas de hecho que hayan pactado como régimen económico-patrimonial cualquiera de los anteriores, no procederá la división de la cuota del tributo.

Artículo 5. *Afección real en la transmisión y responsabilidad solidaria en la cotitularidad.*

1. En los supuestos de cambio, por cualquier causa, en la titularidad de los derechos que constituyen el hecho imponible de este impuesto, los bienes inmuebles objeto de dichos dere-

ordainketari lotuta geratuko dira, erantzukizun subsidiarioagatik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 43.1 artikuluko d) letran aurreikusitako terminoetan.

Ondorio horietarako, notarioek behar den informazioa eskatuko diete bertaratu, eta haien aurrean baimentzen dituzten dokumentuetan gai hauen inguruan ohartaraziko diete modu espresuan: eskualdatzen den higiezinak zerga zorren bat duen ondasun higiezin gainera zergarengatik; zenbateko epea duten interesdunek zergaren aitortpena aurkezteko, obligazio horren arrazoa denean higiezinaren erreferentzia katastrala eta finka zenbakia ez dela komunikatu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko ekainaren 11ko 2/2026 Foru Arauaren 36. artikuluan jasotakoarekin bat; ondasunak zerga kuotaren ordainketari lotuta dauden edo ez; eta, azkenik, zein erantzukizunen menpe gera daitezkeen aitortpenak ez aurkezteagatik, epez kanpo aurkezteagatik edo aurkeztutako aitortpenak faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak izateagatik, alpatutako foru arauan aurreikusitakoaren arabera.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen diren entitateetako partaidekide edo titularkideek modu solidarioan ordainduko dute zerga honen kuota, bakoitzak dituen partaidetzen proportzioan, betiere Higiezin Foru Katastroan hala inskribatuta ageri badira. Katastroan inskribatuta ez badaude, erantzukizuna zati berdinetan exijituko da beti.

6. artikulua. Zerga oinarria.

Zerga honen zerga oinarria ondasun higiezinaren katastro balioa izango da, lurzorua balioa eta, hala badagokio, eraikuntzena barne, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko ekainaren 11ko 2/2026 Foru Arauaren xedatutakoaren arabera arautu, jakinarazi eta, kasua bada, inpugnatuko da.

7. artikulua. Kuota osoa eta kuota likidoa.

1. Zerga honen kuota osoa kalkulatzeko, zerga oinarriari foru arau honen hurrengo artikuluan aipatzen den karga tasa aplikatuko zaio.

2. Kuota likidoa kalkulatzeko, berriz, kuota osotik foru arau honetan aurreikusten diren hobarien zenbatekoa kenduko da, halarik aplikagarria den kasuetan.

8. artikulua. Karga tasa.

1. Hiri lurreko ondasun higiezin eta ezaugarri bereziko ondasunen kasuan, karga tasa 100eko 0,04koa izango da eta 100eko 0,3koa landa lurreko ondasun higiezinaren kasuan.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, udalek ahalmena izango dute bertan adierazten diren karga tasak handitzeko, jarraian zehazten den eran:

a) Hiri lurreko ondasun higieziinei dagokienez, bi karga tasa handiago ezarri ahal izango dituzte:

– Bat, orokorra, 100eko 0,4ko mugaraino.

– Beste bat, 100eko 0,6ra bitarte, lurzoru industrialean edo hirugarren sektorekoan kokatuta dauden ondasun higiezinetakoa, dagozkien balorazio ponentzien arabera, erabilera nagusia industrial edo hirugarren sektorekoa ez duten eraikinetan kokatutako finketarako izan ezik.

b) Landa lurreko ondasun higieziinei dagokienez, karga tasa handitua 100eko 1,1era bitartekoa izaten ahalko da.

c) Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higieziinei dagokienez, 100eko 0,7ra bitarteko karga tasa handitua ezarri ahal izango dute.

chos quedarán afectos al pago de la totalidad de la cuota tributaria, en régimen de responsabilidad subsidiaria, en los términos previstos en la letra d) del artículo 43.1 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

